

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

HARANeko ETA LAGRANGO UDALEN ELKARTZEA

Idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik

Haraneko eta Lagrango UdaLEN Elkartzeko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik geratuko da urriaren 1etik aurrera.

Bat etorri gaikuntza nazionalako toki administrazioako funtzionarioen lege araubidearen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuarekin, lanpostua haletako batentzat gordeta dago, hain zuzen, idazkaritza-kontuhartzaitza azpieskalako funtzionarioentzat.

Kontuan hartu da aipatutako Errege Dekretuaren 48. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoa.

Kontuan hartu da apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.h) artikuluan xedatutakoa.

Horiek horrela, hau ebazten dugu:

Lehenengoa. Hamar egun ematea, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera, hautagaiek eskaerak egiteko; xedea da Lagran eta Haraneko udalen elkartzearen idazkari-kontuhartzaile plaza behin-behinean betetzea. Eskaerak dekretu honi erantsita dagoen ereduaren arabera egingo dira. Azkeneko eguna larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera atzeratuko da.

Idazkari-kontuhartzaitza. Eskala: orokorra. Maila: A taldea. Titulazioa: lizentziaduna, 1174/1987 Dekretuaren 22.1.c artikulua oinarri. Destino-osagarria: 21. Dedikazio erregimena: eskusiboa. Atxikipen lekua: udaletxea. Hizkuntza eskakizuna: 3; derrigortasun data: 2012ko abenduaren 3a. Administrazio egoera: aktiboan.

Gaikuntza nazionala duen toki administrazioako funtzionario bat izendatuko da, lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiek lehentasuna izanik; kontu hori behar den moduan egiaztatuko da.

Hautagai bat baino gehiago aurkezten bada, parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean Lurralde Politikako Ministerioak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan puntu gehien lortu duena proposatuko da izendatua izateko.

Bigarrena. Aukeratutako hautagaiaren behin-behineko izendapena proposatzea Arabako Foru Aldundiari.

Hirugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du gaikuntza nazionalako toki administrazioako funtzionarioen lege araubidearen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoek xedatutako prozedurak.

Lagran, 2018ko irailaren 14a

Alkatea

JOSÉ MARÍA MARTÍNEZ FERNÁNDEZ

ERANSKINA

Nik, jaunak/andreak (NANa:; jakinarazpenetarako helbidea:, udalerrria:; telefonoa:), estatu mailako gaikuntza duen funtzionarioak, azpieskalakoak, eta egun toki erakundean lanpostua betetzen dutanak, ondokoa

ADIERAZTEN DUT

Jakin dudala Arabako Lagran-Haraneko Udal Elkartearen idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela, eta ALHAOn (....zk.) argitaratutako iragarkiaren arabera, hura aldi baterako betetzeko aukera dagoela, gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioen lege araubidearen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Betetzen ditudala, nire ustean, lanpostu horri dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren betekizunak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez,

ESKATZEN DUT

Parte hartzea Arabako Lagran-Haraneko udal elkartearen idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin betiko bete arte behin-behineko izendapen bidez betetzeko prozeduran.

Honekin batera, ondoko agiriak aurkezten dira:

- NANaren fotokopia.
 - Estatu mailako gaikuntza duen funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.
-, 2018koaren(a).
- Izenpea

Lagran eta Harana, 2018koaren....(a)

Alkatea

JOSE MARIA MARTINEZ FERNANDEZ

Alkatea

PEDRO SAN VICENTE CORRES